



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

TURISMOA GERNIKAKO BATZAR ETXERA ITZULI DA ETA 8.448 BISITARI ITXI DITU BI HILABETETAN

- Bizkaiko Batzarretako bisiten eukiera egun gehienetan bete zan garagarrilaren 20an jentearentzat barriro zabaldu zanetik.
- Garagarrilaren 20tik irailaren 15era bitartean, 8.448 pertsonak bisitatu eben Gernikako Arbolea, % 13 atzerritarrek.
- Enkarterrietako Museoa bikoiztu egin ditu 2020ko zifrak.

(Gernikan, 2021eko irailaren 20an). Gernikako Batzar Etxeak bere ohiko irudia berreskuratu dau apurka-apurka, bisitariz betetan zan udagaz batera. Garagarrilaren 20an inauguratu eben *tiketing* sistemak 8.448 lagun sarrerea zenbatu dau irailaren 15era arte.

Gernikako Arbolaren atsedenekuak Euskadiko eta beste Autonomia Erkidego batzuetako herri eta urietatik etorritako bisitarien arretea bereganatu dau barriro be, baina beste herrialde batzuetako personak be erakarri ditu, gehienak europarrak. Bizkaiko Batzar Nagusien egoitza bisitetako erakutsi daben interesa dala eta, eguneko eukierea (154 persona gehienez) bete egin da udako jardunaldi gehienetan.

Batzar Nagusien egoitza ezagutzera hurbildu ziran personak % 83 Euskal Herri kanpotik etorri ziran. Uda honetan, Batzar Etxea eta haren inguruak beste autonomia erkidego batzuetatik (5.923 persona) eta atzerritik (1.136) etorritako bisitariz bete dira, familiarra izateagaitik nabarmentzen dan turismoa, garai honetan, batez be.

Estaduko beste leku batzuetatik hurbiltzen diran bisitarien artean katalanak dira nagusi (1.817), ostean madrildarrak (1.279) eta valentziarrak (840). Atzerriko bisitariak jagokenez, Europako herrialde handiak dira oraindino be igorle nagusiak. Frantziatik eta Alemaniatik etorri dira zenbatutako 1.136 atzerritarretatik gehienak, baina Estatu Batuetako herritarren etorrerea be antzeman da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

2021EKO UDAKO BISITARIAK (GARAGARRILAREN 20TIK IRAILAREN 15ERA)

JATORRIA	PERSONAK
EUSKAL HERRIA	1.389
BIZKAIA	1.000
BESTE ERKIDEGO BATZUK	5.923
ATZERRITARRAK	1.136
GUZTIRA	8.448

Garagarrilaren 20tik aurrera, Gernikako Batzar Etxea bisitatu gura dauenak erreserba bat eskatu behar dau webgunearen bidez edo Batzar Nagusien egoitzan bertan instalautako totem baten bidez, eukierea mugatua dalako. Sistemak sarrera bat emoten dau, doban, Batzar Etxeko interes handieneko barrutietara sartzeko. Helburua, Batzar Etxe barruko barrutietan personen fluxua antolatzea eta eukierea mugatzea da.

Bisitariak gehienez 45 minutu ditue bisita egiteko. Gehieneko eukierea 22 personakoa da orduko, eta norabide bakarreko ibilbidea egin behar da Batzar Etxe barruko barrutietan personen fluxua antolatzeko; ibilbide hori osoko bilkuren aretoan hasi eta Gernikako Arbolan amaitzen da, Batzarretako beste leku batzuetatik igaro ostean (Beiratearen Aretoa, liburutegia, lehendakariaren bulegoa...).

ENKARTERRIETAKO MUSEOA

Abellanedako Enkarterrietako Museoak be egin dau balantzea. Udako hilebeteetan bikoiztu egin da bisitarien kopurua, eta 1.381 bisitari izan ditu bagila eta abuztua bitartean. Persona gehien jatorria bertakoa eta beste autonomia erkidego batzuetakoa izan da, eta atzerriko turismoaren aktibazioa antzeman da, Frantzia, Alemania, Belgika... Eta Latinoamerikatik, batez be Mexikotik eta Paraguitik, etorri diran eta herri hareetara joandako euskaldunen ondorengoak diran bisitariak be azpimarratu behar dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

EL TURISMO VUELVE A LA CASA DE JUNTAS DE GERNIKA Y DEJA 8.448 VISITANTES EN DOS MESES

- El aforo de visitas del Parlamento de Bizkaia se completó en la mayoría de días desde su reapertura al público el pasado 20 de julio.
- Entre el 20 de julio y el 15 de septiembre el lugar donde crece el Árbol de Gernika fue visitado por 8.448 personas, un 13% extranjeros.
- El Museo de Las Encartaciones duplica las cifras de 2020.

(Gernika, a 20 de septiembre de 2021). La Casa de Juntas de Gernika vuelve a recobrar poco a poco su estampa habitual coincidiendo con el verano cuando sus dependencias se llenaban de visitantes. El sistema de *ticketing* inaugurado el 20 de julio ha contabilizado hasta el 15 de septiembre la entrada de 8.448 personas.

El lugar donde descansa el Árbol de Gernika ha captado la atención nuevamente de visitantes venidos de pueblos y ciudades de Euskal Herria y de otras Comunidades Autónomas, principalmente, si bien ha atraído también a personas de otros países, la mayoría europeos. Su interés por visitar el Parlamento de Bizkaia se ha traducido en que el aforo diario (154 personas máximo) se ha completado en una buena parte de las jornadas estivales.

El 83% de las personas que se acercaron a conocer el recinto parlamentario provino de fuera de Euskal Herria. Durante este verano, la Casa de Juntas y sus alrededores se han llenado de visitantes venidos de otras comunidades autónomas (5.923 personas) y extranjeros (1.136), un turismo que durante esta época destaca por ser eminentemente familiar.

Entre los visitantes que se acercan de otras zonas del Estado los catalanes son mayoría (1.817), seguidos de madrileños (1.279) y valencianos (840). En cuanto a los visitantes extranjeros, los grandes países europeos continúan siendo los principales emisores. Francia y Alemania son los países de procedencia de la mayoría de los 1.136 extranjeros que se han contabilizado, aunque se ha detectado la llegada de ciudadanos estadounidenses.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

VISITANTES VERANO 2021 (ENTRE EL 20 DE JULIO Y EL 15 DE SEPTIEMBRE)

PROCEDENCIA	PERSONAS
EUSKAL HERRIA	1.389
BIZKAIA	1.000
OTRAS COMUNIDADES	5.923
EXTRANJEROS	1.136
TOTAL	8.448

Desde el 20 de julio quien quiera visitar la Casa de Juntas de Gernika tiene que pedir una reserva a través de la web o en un tótem instalado en el propio recinto parlamentario, ya que existe un aforo limitado. El sistema emite una entrada, sin coste alguno, que da acceso a las estancias de la Casa de Juntas de mayor interés. El objetivo es ordenar el flujo de personas y limitar el aforo en el interior de las dependencias forales.

Los visitantes tienen un máximo de 45 minutos para realizar la visita. El límite de aforo es de 22 personas por hora y se ha marcado un recorrido unidireccional para ordenar el flujo de personas en el interior de las dependencias forales; un recorrido que comienza en el salón de plenos y finaliza en el Árbol de Gernika, tras pasar por otras estancias de la Cámara (Sala de la Vidriera, biblioteca, despacho presidencial...).

MUSEO DE LAS ENCARTACIONES

Asimismo, el Museo de Las Encartaciones de Abellaneda ha hecho balance. Durante los meses de verano ha llegado a duplicar el número de visitantes respecto a las cifras del año pasado alcanzando los 1.381 visitantes entre junio y agosto. El origen de la mayoría del público ha sido local y de otras comunidades autónomas, y se ha detectado una activación del turismo extranjero, con visitantes de Francia, Alemania, Bélgica e incluso de Latinoamérica, principalmente descendientes de vascos y vascas que han visitado el conjunto de Abellaneda desde México y Paraguay.